JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**SUPLEMENTO**
al Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava

**GEHIGARRIA**
Araba Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofiziala

**2012ko otsailaren 3a, ostirala** ZENBAKIA **14** NÚMERO **Viernes, 3 de febrero de 2012**

## ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

**489**

**1/2012 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.**

Arabako Biltzar Nagusiek, 2012ko urtarrilaren 23an egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

1/2012 Foru Araua, urtarrilaren 23koa, Arabako Lurralde Historikoko ibilbide berdeei buruzkoa.

ARRAZOIEN AZALPENA

Arabako Ibilbide Berdeen Foru Arauaren testuingurua eta hura edukitzeko dagoen beharra.

Badira hogei urte baino gehiago Arabako Foru Aldundia, Toki Erakunde titularrekin elkarlanean, bide berdeen kontzeptua lantzen ari dela, bide zaharrak sustatuz, berreskuratuz eta kudeatuz edo, natura, paisaia, historia eta kultura ondarea (ibilbide bitxiak, natura bideak, inguru eta paisaia balio handiko ibilbideak) lehengoratu eta balioztatzeko, bide berriak urratuz. Era berean aisia, hezkuntza, ingurumenaren interpretazioa, lurralde barruko ekologia eta paisaia lotura berreskuratzea eta natura ingurunera errespetuz hurbiltzen ikastea ere Aldundiaren helburu dira azken urteotan.

Ekintza horiek jardun programa zabalago baten barruan kokatzen dira, hain zuzen ere Arabako Lurralde Historikoko Biodibertsitatearen eta Paisaiaren Zaintzara zuzendurikoaren barruan. Horrek, Ibilbide Berdeen Sarearen ildoan garapenak egiteaz gain, beste ildo osagarri batzuk ere garatzen ditu (Paisaia bereziak eta bikainak babestu, Lotura Ekologikoa sustatzea eta Sare Ekologiko Funtzional bat antolatzea: Gune Babestuen eta Lotura Sistemaren Sarea; Lurraldearen Antolamendua oinarri ekologikoarekin).

Jarduera horiek guztiek garapen orekatua sortzeko ikuspegi zehatzari erantzuten diote, eta garapen orekatu horrek konpromisoa edukiko du lurralde kohesioarekin eta Natura Ondarearen, Paisaiaren eta Biodibertsitatearen zaintzarekin.

## JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

**489**

**Norma Foral 1/2012, de 23 de enero, de itinerarios verdes del Territorio Histórico de Álava.**

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 23 de enero de 2012, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 1/2012, de 23 de enero, de itinerarios verdes del Territorio Histórico de Álava.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

Contexto y necesidad de la Norma Foral de Itinerarios Verdes de Álava.

Hace ya más de veinte años que la Diputación Foral de Álava viene trabajando, en colaboración con las Entidades Locales titulares, en el concepto de Rutas Verdes promoviendo, recuperando y gestionando antiguos caminos o abriendo vías de nueva creación con fines de restauración y puesta en valor del Patrimonio natural, paisajístico e histórico-cultural (rutas singulares, caminos naturales, itinerarios por entornos valiosos y de gran interés escénico, etc.), recreo, educación e interpretación ambiental, recuperación de la conectividad ecológica y paisajística del territorio y promoción de modos de acercamiento respetuosos al medio natural.

Estas acciones se engloban en un programa de actuación más amplio dirigido a la Conservación de la Biodiversidad y el Paisaje del Territorio Histórico de Álava que, además de en la línea de la Red de Rutas Verdes, está desarrollando otras líneas complementarias (protección de los Paisajes Singulares y Sobresalientes, fomento de la Conectividad Ecológica y articulación de una Red Ecológica Funcional: Red de Espacios Protegidos y Sistema de Conectores; Ordenación del Territorio con base ecológica).

Todas estas actuaciones responden a la visión concreta de generar un desarrollo equilibrado, comprometido con la cohesión territorial y con la conservación del Patrimonio Natural, el Paisaje y la Biodiversidad.

Kontserbazio estrategia honen barruan, Ibilbide Berdeen Sarea Kontserbaziorako aktibo bat bezala proposatu eta diseinatu da. Herritarrak Naturara iristea, eremu hauei datxekien ahultasunarekiko errespetuaren premisapean naturaren eta paisaien balioen ezagutza, interpretazioa eta gozamena erraztuz, oso lagungarria da naturguneak eta biodibertsitatea balioztatzeko eta ingurumenaren babesaren aldeko gizarte jarrerak sustatzeko.

Lan esparru honetan, Ibilbide Berdeek sustatu egiten dute gizarte eta lurraldearen arteko harremana mantsoagoa izatea, motorizatu gabekoa, eta hausnarketarako, aisiarako eta ezagutzarako denbora duena.

Helburu nagusiak hauek dira:

• Jendea Ingurune Naturalera errespetuz sartzen dela erraztea, natura, paisaia eta kultura balioak ezagutu eta gozatzen dituela ahalbidetuz Ibilbideak igarotzen diren eremuetan.

• Landa eremuak hiri inguruneekin lotzea.

• Mugikortasun iraunkorreko baliabideak eta naturarekin harremanetan garatzen diren ekoaisiako jarduerak bultzatzea.

• Garrantzi natural, historiko edo kultural adierazgarria edukitzeagatik bide zahar bereziak mantentzea eta, hala badagokio, berreskuratu eta lehengoratzea (Donejakue Bidea, Trenbide zaharrak eta egun erabilerarik ez duten bestelako azpiegitura linealak, eta abar).

• Era orekatuan integratzea natura eta historia alderdiak.

• Lurralde sare funtzionala eratzea, Arabako kultura eta paisaia aberastasun guztia bilduko duena.

• Landa Garapen Iraunkorreko ekimen berriak ezartzen laguntzea.

• Landa biztanlerien eta haien jardueren garrantzia jakinaraztea, gure landa ingurunea eta gure paisaiak zaindu eta mantentzeari dagokienez.

Ingurumen Sailaren lan honek toki erakundeen esku hartzea eta parte hartze aktiboa eduki ditu, eta gaur arte oso emaitza zehatzak eskuratu ditu: 420 km baino gehiago erabiltzen ari da, 300 km gehiago obratan dago eta beste 400 km ia azterlan edo proiektu fasean dago. Ondorioz, epe labur edo ertainean, 800-1000 km inguruko Ibilbide Berdeen Sare bat martxan jartzea aurreikusi da. Gainera, azpimarratzekoak dira Toki Erakunde Arabarrak sustatzen ari diren ibilbide eta bidexken proiektu eta ekimen ugariak.

Jada eskuratu diren kopuruen lurralde tamainak eta datozen urteetarako dagoen proiektuaren garrantziak eragin egiten dute ezinbestekoa izatea legezko tresnak sortzea. Horiek, lehenik eta behin, juridikoki aitortu behar dute Ibilbide Berdeen Sarearen kontzeptua (izaera, ezaugarriak, erabilerak, eta abar), eta, ondoren, arautze hori Sarearen jarraitutasuna eta garapena bermatuz egin behar da.

Testuinguru horretan sortzen da Arabako Ibilbide Berdeen Foru Arauaren beharra, Ingurumen Sailaren egitura organikoa eta funtzionala onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 20ko 48/2008 Foru Dekretuan jada aurreikusi zena.

Alor hau erregulatzeko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoko osoko erakundeen eta bertako lurralde historikoetako foru organoen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.8. artikuluan oinarritzen da, foru erakunde horiei esleitzen baitie bideen eskumen esklusiboa, baita lege beraren 7.a.9. artikuluan ere, abelbideen eskumen esklusiboa ere esleituz. Azken hauen estatuaren oinarrizko legeriak erabilera gehigarritzat irizten ditu paseatzea, mendi-ibiliak egitea, zaldian ibiltzea eta motorrik gabeko ibilgailuetan kirol-desplazamenduak egiteko beste modu batzuk.

Bestalde, Arabako Biltzar Nagusiek, 2009ko urriaren 19an egindako Osoko Bilkuran, onartu egin zuten Araban Energia Berriztagarriak Sustatu eta Garatzeko Ekintza Plana (2010-2020), hain zuzen ere Diputatuen Kontseiluaren 2009ko ekainaren 23ko Erabakiaren bitartez ere onartutakoa. Bertan, motorizatu gabeko mugikortasun moduak sustatzea aurreikusten da eta, horretarako, Arabako Ibilbide Berdeen Sarea gauzatzen, mantentzen eta sustatzen

Dentro de esta Estrategia de Conservación, la Red de Itinerarios Verdes se propone y diseña como un activo para la Conservación. El acceso de la ciudadanía a la Naturaleza, facilitándole el conocimiento, la interpretación y el disfrute de los valores naturales y paisajísticos, bajo la premisa del respeto a la fragilidad intrínseca de estas áreas, contribuye de una forma muy importante a la puesta en valor de los espacios naturales y la biodiversidad, y al fomento de actitudes sociales a favor de la protección del medio ambiente.

En este marco de trabajo los Itinerarios Verdes promueven la relación sociedad-territorio a un ritmo más pausado, no motorizado, con tiempo para la reflexión, el esparcimiento y el conocimiento.

Sus objetivos principales son:

• Facilitar el acceso público respetuoso al Medio Natural, posibilitando el conocimiento y disfrute públicos de los valores naturales, paisajísticos y culturales de las áreas por las que discurren las Rutas.

• Conectar áreas rurales con los entornos urbanos.

• Promocionar los medios de movilidad sostenible y las actividades eco-recreativas en contacto con la naturaleza.

• Mantener y, en su caso, recuperar y restaurar antiguos caminos singulares de marcada significación natural histórica o cultural (Camino de Santiago, antiguas Vías de Ferrocarril y otras infraestructuras lineales en desuso, etc.).

• Integrar armoniosamente los aspectos naturales e históricos.

• Configurar una red territorial funcional que incorpore toda la riqueza cultural y paisajística de Álava.

• Contribuir a implementar nuevas iniciativas de Desarrollo Rural Sostenible.

• Dar a conocer la importancia de las poblaciones rurales y sus actividades en la conservación y el mantenimiento de nuestro medio natural y de nuestros paisajes.

Esta labor del Departamento de Medio Ambiente con la implicación y activa participación de las Entidades Locales ha conseguido a día de hoy unos resultados concretos; más de 560 km en uso, unos 330 km más en obras y prácticamente otros 400 km en fase de estudio o proyecto. Se prevé por tanto a corto/medio plazo la puesta en funcionamiento de una Red de Itinerarios Verdes en torno a los 800-1000 km, debiéndose destacar además los numerosos proyectos e iniciativas de itinerarios y senderos que están siendo promovidos por las Entidades Locales Alavesas.

La envergadura territorial de estas cifras ya alcanzadas y la importancia del proyecto para los próximos años hacen imprescindible que se generen herramientas legales que en primer lugar reconozcan jurídicamente el concepto de Red de Itinerarios Verdes (naturaleza, características, usos, etc.) y que lo regulen garantizando su continuidad y desarrollo.

En este contexto surge la necesidad de la Norma Foral de Itinerarios Verdes del Territorio Histórico de Álava ya prevista en el Decreto Foral 48/2008, del Consejo de Diputados de 20 de mayo por el que se aprueba la estructura orgánica y funcional del Departamento de Medio Ambiente.

La competencia para regular esta materia tiene su apoyo en el art. 7.a.8 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma del País Vasco y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos al atribuir a estos la competencia exclusiva en materia de caminos, así como en el art.7.a. 9 de la misma ley que también les atribuye competencia exclusiva en materia de vías pecuarias cuya legislación básica estatal considera usos complementarios el paseo, la práctica del senderismo, la cabalgada y otras formas de desplazamiento deportivo sobre vehículos no motorizados.

Por otra parte, las Juntas Generales de Álava, en sesión Plenaria celebrada el 19 de octubre de 2009, aprobaron el Plan de Acción para la Promoción y Desarrollo de las Energías Renovables en Álava (2010-2020) que, a su vez había sido aprobado mediante Acuerdo del Consejo de Diputados de 23 de junio de 2009, en el cual se prevé impulsar formas de movilidad no motorizadas para lo cual, además de seguir ejecutando, manteniendo y promocionando la red de Rutas

jarraitu beharraz gain, aurreikusi egiten da oinezkoentzako eta bizikletentzako azpiegiturak antolatu eta bultzatzeko esparru arautzailea garatzea. Hori Biltzar Nagusiek jada onartuta duten Bizikleta Bideentzako Foru Araua (martxoaren 8ko 4/2010 Foru Araua) eta testu honek jasotzen dituen Ibilbide Berdeen Foru Araua landu eta onartzearen bitartez egingo litzateke.

Hurbileko politikekin lerrokatzea. Aliantzak eta sinergiak.

Testuinguru zabalago bat berraztertuz gero, ikus daiteke nazioarteko eremuan, estatuko eremuan edo eremu autonomikoan politikak bultzatzen ari direla eta horien helburuak, hainbat kasutan, komunak direla Ibilbide Berdeen Sareak dituenekin. Gainera, neurri handiagoan edo txikiagoan, politika horiek eragina eduki dezakete eremu arabarrean, sinergiak ekarriz eta esfortzuak bateratuz parte hartzen duten helburuetako batzuk neurri batean lortzen.

Zehazki, hauek lirateke beste politika eta plan batzuekiko gai komunak: Ingurune Naturalera eta Landa Ingurunera hurbiltzea, Natura Ondarea eta Ondare Historiko eta Kulturala berreskuratzea, Naturaren Zaintza Ibilbide Naturalak oinarri hartuta baloratzea, Lurralde sentsibilizazioa hura balioztatzera zuzenduta eta populazioa horren guztiaren garrantziaz jabearaztea eta mugikortasun iraunkorra lortzen saiatzea. Horri dagokionez, azpimarratzekoak dira Natura Ondarearen eta Biodibertsitatearen Legea, 2007koa, eta Ingurumen Ministerioaren Bide Naturalen Programa.

Foru Arauaren egitura eta edukia.

Foru arau hau 60 artikulutan antolatzen da. Horiek 7 titulutan, 4 xedapen gehigarritan, xedapen iragankor bietan eta bi azken xedapenetan multzokaturik daude.

I. Tituluan xedea, aplikazio eremua eta gehien erabilitako terminoen definizioak sartu dira, eta baita Ibilbide Berdeen sailkapena ere. Halaber, herri administrazio ezberdinek gai honetan edukiko duten titulartasun eta eskumen araubidea ere jaso da bertan. Azkenik, oinarrizko tresna baten, alegia, Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoaren araudi xehatua hartzen du, eta adierazpen hori jasotzeko prozedura eta Ibilbide Berde ezberdinen ezaugarri orokorrak ere bai.

II. Tituluak jaso egiten du, batetik, Arabako Foru Aldundiak Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Arloko Lurralde Plana landuko duela dioen aurreikuspena, eta, bestetik, ibilbide berrien eraikuntzari edo jada existitzen direnen berrikuntzari, horien finantzaketari eta adierazpenari buruzko alderdiak.

Bestalde, III. Tituluak Ibilbide Berdeetan dauden babes zona ezberdinak arautzen ditu, haien tipologiaren, zona bakoitzean onartzen diren eta bateragarri diren erabilera moten, erabilera horiek baimentzeko araubidearen eta Ibilbide Berdeen mantentze lanen eta ikuskapenaren arabera.

Foru arau honetako IV. Tituluak Arabako Ibilbide Berdeen berariazko araubidea arautzen edo aurreikusten du, hiri lurzoruan edo lurzoru urbanizagarrian kokatzen diren tarteetarako.

V. Tituluak Ibilbide Berdeen izaera galtzeko edo aldatzeko dauden baldintzak finkatzen eta arautzen ditu, bai bide berdeentzat, bai ibili berdeentzat edo bidezidorrentzat.

VI. Tituluan aurreikusi egiten da zein izango den Ibilbide Berdeen gaian egiten diren arau hausteen araubidea, eta baita arau hauste horiei dagozkien zehapenak zeintzuk izango diren ere.

Azkenik, Foru Arauaren VII. Tituluak jaso egiten ditu Arabako Lurralde Historikoko Ibilbide Berdeak sustatzeko ekintzak. Horretarako, sortu egiten ditu, batetik, “Arabako Ibilbide Berdeen Sarea” marka eta, bestetik, Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Kontseilua deitzen den horretan esku hartzen duten agente, erakunde eta administrazio ezberdinen arteko topaketarako eta koordinaziorako aholkularitza organoa.

## I. TITULUA. XEDAPEN OROKORRAK

### I. KAPITULUA: XEDEA ETA APLIKAZIO EREMUA

**1. artikulua. Xedea**

Foru arau honen xedea Arabako Ibilbide Berdeen araubide juridikoa arautzea da, eta baita horien eta horiei uztartutako azpiegituren eraikuntza, suspertzea edo lehengoratzea, aldaketa, antolamendua,

Verdes de Álava, se prevé el desarrollo de un marco normativo para la ordenación e impulso de las infraestructuras peatonales y ciclistas, a través de la elaboración y aprobación de la Norma Foral de Vías Ciclistas, ya aprobada por las Juntas Generales (Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo), y de Rutas Verdes que se contiene en este texto.

Alineación con políticas próximas. Alianzas y sinergias.

Si se revisa un contexto más amplio se observa como en los ámbitos internacional, nacional o autonómico se están promoviendo políticas que en muchos casos tienen alguno de sus objetivos comunes a los de la Red de Itinerarios Verdes, y que en mayor o menor medida pueden incidir en el ámbito alavés dando lugar a sinergias y aunando esfuerzos en el logro parcial de algunas metas de las que participan.

En concreto, serían materias comunes a otras políticas y planes el acercamiento al Medio Natural y Rural, la recuperación del Patrimonio Natural e Histórico-Cultural, la valoración de la Conservación de la Naturaleza en base a los Itinerarios Naturales, la Sensibilización territorial dirigida a su puesta en valor, así como a concienciar a la población de su importancia y a procurar la movilidad sostenible. Destacan en este aspecto la Ley de Patrimonio Natural y de la Biodiversidad de 2007 y el Programa de Caminos Naturales del Ministerio de Medio Ambiente.

Estructura y contenido de la Norma Foral.

La presente Norma Foral se estructura en 60 artículos, los cuales se encuentran agrupados en 7 títulos, 4 Disposiciones Adicionales, 2 Disposición Transitorias y 2 Disposiciones Finales.

El Titulo I contempla el objeto, ámbito de aplicación y las definiciones de los términos más usados, así como la clasificación de los itinerarios verdes. Igualmente prevé el régimen de titularidad y competencial de las diferentes Administraciones Públicas en la materia. Por último, contiene una exhaustiva regulación de una herramienta fundamental, como es el Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes del Territorio Histórico de Álava, el procedimiento para su declaración, así como las características generales de los diferentes itinerarios verdes.

El Título II contiene por una parte la previsión de la elaboración por parte de la Diputación Foral de Álava de un Plan Territorial Sectorial de la Red de Itinerarios Verdes de Álava, y por otra, los aspectos relativos a la construcción de nuevos itinerarios o renovación de los existentes, su financiación y su declaración.

Por su parte, el Título III regula las distintas zonas de protección existentes en los itinerarios verdes, en función de su tipología, los tipos de usos permitidos y compatibles en cada una de las zonas, el régimen de autorización de dichos usos, y el mantenimiento y la vigilancia de los itinerarios verdes.

El Título IV de la presente Norma Foral, regula o prevé el régimen específico de los itinerarios verdes de Álava en los tramos comprendidos en el suelo urbano o urbanizable.

El Título V establece y regula los requisitos de modificación y pérdida de la condición de itinerarios verdes, tanto para las vías verdes, como para las rutas verdes o las sendas.

En el Título VI se prevé el régimen de las infracciones en materia de itinerarios verdes, así como las sanciones correspondientes a dichas infracciones.

Por último, el Título VII de la Norma Foral, contempla las acciones de promoción de los itinerarios verdes del Territorio Histórico de Álava, creando por una parte la marca “Red de Itinerarios Verdes de Álava”, y por otra parte, un órgano asesor de encuentro y coordinación entre los distintos agentes, instituciones y administraciones implicadas denominado Consejo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava.

## TÍTULO I - DISPOSICIONES GENERALES

### CAPÍTULO I: OBJETO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

**Articulo 1. Objeto**

La presente Norma Foral tiene como objeto la regulación del régimen jurídico de los Itinerarios Verdes de Álava, así como el establecimiento de las disposiciones que han de regir la construcción, recu-

erabilera, zaintza, sustapena, adierazpena eta kudeaketa arautu behar duten xedapenak ezartzea ere.

**2. artikulua. Definizioak eta tipologiak**

Foru arau honen eraginetarako definizioak hauek dira:

1. Ibilbide Berdeak: komunikazio azpiegiturak –ahal dela zerbitzutik kanpo erabat edo neurri batean dauden azpiegitura lineal zaharrak–, garai bateko abelbideak nahiz bide naturalak, erromesenak eta ibilbide historiko handiak edota interes ekologiko eta paisaia interes adierazgarrikoak direnak erabiltzen dituztenak, motorizatu gabeko joan-etorriak egiteko (oinez, bizikletaz, zaldiz, patinekin, beste batzuen bitartez). Bide horiek jendeak erabiltzeko proiektatu, egokitu edo eraiki dira, naturan aisia irisgarria, aisia ekologiko eta hezitzailea, soziokulturala eta kirolekoa sustatze aldera. Halaber, zeharkatzen duten lurraldearen natura ondarea eta ondare historiko eta kulturala lehengoratu, dinamizatu eta balioztatu nahi da.

2. Ezaugarri teknikoei dagokienez, jarraian aipatuko diren tipologiak bereizten dira Ibilbide Berdeen artean:

- Bide Berdea: ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea, dituen ezaugarriengatik eta morfologiarengatik behar besteko zabalera, malda eta gainazaleko kalitate baditu edozein gaitasun fisiko duten erabiltzaileek bizikidetzan eta segurtasunean erabiltzeko.
- Ibili Berdea: ibilgailu motordunik gabeko joan-etorrietarako utzitako bidea. Hauetan, erabilera horiek bat etorri daitezke landa jardueretara elkartutako joan-etorri motorizatu batzuekin (funtsean nekazaritza, abeltzaintza edo basogintzako jarduerak), edo, bestela, izan daiteke zeharkatzen duen ingurunearen ezaugarriak direla-eta ez betetzea bide berde bat izateko baldintzak, malda arina edukitzea zailtzen duen topografia bati egokiturik egoteagatik.
- Bidezidor Berdea: ingurune naturaletik edo landa ingurunetik igarotzen den bidexka. Honen malda baldintzak eta azaleraren kalitatearenak lursail naturalarenak dira, eta horren zabalera, normalean, bide edo ibili berdeetarako normalizaturik dagoena baino txikiagoa izaten da. Mantentzeko gutxieneko esku hartzea eskatu ohi dute.

Ibilbide horiek jada existitzen diren azpiegiturak izan ditzakete oinarri, edo, bestela, sorrera berriko tarteekin eraikita egon. Helburua, ahal dela, trazadurari jarraitutasuna ematea edo ibilbideek euren artean eta beste puntu interesgarri batzuekin (landa guneekin, ekipamenduekin, zerbitzuekin, mugarriekin edo natura intereseko guneekin, ondare interesekoekin edo interes historiko eta kulturala dutenekin) lotura edukiko dutela bermatzea da.

3. Foru arau honen eraginetarako, Arabako Ibilbide Berdeen Saretzat jotzen da Arabako Lurralde Historikoa funtzionalki egituratzen eta antolatzen duten bide berdeen multzoa, modu horretara izendatu badira Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartzearen bitartez.

4. Sarean duten funtzionaltasunari begiratuz gero, Arabako Ibilbide Berdeak honela sailkatzen dira:

- Lehentasunezko interesa duten ibilbideak (nazioartean, probintzia artean edo probintzian bertan): Arabako Lurralde Historikoko eremu zabaletatik igarotzen diren horiek dira, lurraldea zeharkatuz edo hura zeharkatzea ahalbidetzen duten maila berdineko beste batzuekin lotuz. Horiek probintziaren eremuan kokatu daitezke, edo jarraitutasuna eduki probintziatik aurrerago.
- Eskualde intereseko ibilbideak: eskualde batetik igarotzen direnak dira, gune nagusiak elkarren artean lotuz, lurraldea zeharkatuz edo ondare historiko edo naturalarekin uztartuz.
- Toki intereseko ibilbideak: eskualdeko udalerri batetik edo bat baino gehiagotik igarotzen direnak dira; horiek, bigarren maila batean, natura, kultura edo historia intereseko zona edo eremu zehatzetara sartzeko tradizioz izan duten izaera mantentzen dute.

**3. artikulua. Aplikazio eremua**

Foru arau hau aplikatu egingo zaio Arabako Ibilbide Berdeen Sareari, Foru arau honetan horiei buruz bildu diren definizio eta tipologiei jarraiki, eta bertan jaso diren muga eta baldintzak aplikatuz.

peración o restauración, modificación, ordenación, uso, conservación, promoción, declaración y gestión de los mismos y sus infraestructuras asociadas.

**Artículo 2. Definiciones y tipologías**

A efectos de esta Norma Foral se entiende por:

1. Itinerarios Verdes: infraestructuras de comunicación que utilizan preferentemente antiguas infraestructuras lineales parcial o totalmente fuera de servicio, antiguas vías pecuarias, así como caminos naturales, de peregrinaje y grandes itinerarios históricos y/o de notable interés ecológico y paisajístico destinados a los desplazamientos no motorizados (peatonal, ciclista, jinetes, patinadores, otros), proyectadas, acondicionadas o construidas para uso público con fines de promoción del ocio accesible en la naturaleza, ecológico-educativos, socio-culturales y deportivos, así como de recuperación, dinamización y puesta en valor del patrimonio natural e histórico-cultural del territorio que atraviesan.

2. En cuanto a sus características técnicas, se diferencian las siguientes tipologías de Itinerarios Verdes:

- Vía Verde: vía reservada a los desplazamientos no motorizados, que por sus características y morfología cumple las condiciones suficientes de anchura, pendiente y calidad superficial para garantizar la utilización en convivencia y seguridad a todos los usuarios de cualquier capacidad física.
- Ruta Verde: vía acondicionada para los desplazamientos no motorizados en la que estos usos pueden coincidir con otros desplazamientos motorizados asociados a actividades rurales (fundamentalmente agropecuarias o forestales), o en la que por las características del medio que atraviesa no cumple todas las condiciones de una vía verde por su adaptación a una topografía que dificulta una reducida pendiente.
- Senda Verde: sendero que discurre por el medio natural o rural, cuyas condiciones de pendiente y calidad superficial son las del terreno natural, cuya anchura es normalmente inferior a la normalizada para las vías o rutas verdes y requieren de una intervención mínima para su mantenimiento.

Estos itinerarios pueden apoyarse sobre infraestructuras ya existentes o estar constituidos por tramos de nueva creación con el fin preferentemente de dar continuidad a su trazado o de garantizar la conexión de los itinerarios entre sí y con otros puntos de interés (núcleos rurales, equipamientos, servicios, hitos o espacios de interés natural, patrimonial o histórico-cultural).

3. A los efectos de esta Norma Foral, se entiende por Red de Itinerarios Verdes de Álava al conjunto de itinerarios verdes que estructuran y articulan funcionalmente el Territorio Histórico de Álava y que han sido declarados como tales mediante su inclusión en el Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava.

4. Atendiendo a su funcionalidad en la red, los Itinerarios Verdes de Álava se clasifican en:

- Itinerarios de interés preferente (internacional, interprovincial o provincial): son aquéllos que discurren por ámbitos extensos del Territorio Histórico de Álava, atravesándolo o conectando con otros del mismo rango que permitan atravesarlo, y que pueden estar contenidos en el ámbito provincial o tener continuidad más allá de él.
- Itinerarios de interés comarcal: son aquéllos que discurren por una comarca conectando sus principales núcleos entre sí, atravesando su territorio o enlazando con su patrimonio histórico o natural.
- Itinerarios de interés local: son aquellos que discurren por uno o más municipios de una comarca y que, con un carácter secundario, conservan su carácter tradicional de acceso a zonas o áreas puntuales de interés natural, cultural o histórico.

**Artículo 3. Ámbito de aplicación**

La presente Norma Foral será de aplicación a la Red de Itinerarios Verdes de Álava, conforme a la definición y las tipologías de los mismos contenidas en la presente Norma Foral, y con las limitaciones

Halaber, hauei aplika dakiekeen sektoreko gainerako legedia ere aplikatuko da.

Arabako Ibilbide Berdeen Sareko tarteren batean bat egiten badute landa bideek, abelbideek edo basogintzakoek, landa bideen, abelbideen edo basogintzako bideen berariazko araudia da aplikatuko dena.

Araudi honetatik kanpo geratzen dira espresuki martxoaren 8ko 4/2010 Foru Arauak araututako bizikleta bideak.

II. KAPITULUA: IBILBIDE BERDEEN TITULARTASUNA

**4. artikulua. Titulartasuna**

1. Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartutako titulartasun publikoko Ibilbide Berdeak Lurralde Historikoarenak, udalenak edo kontzejuenak izango dira.

2. Aurreko idatz zatietan jasotakoaren kaltetan izan gabe, eta Hitzarmen baten forma edukiko duen kasuan kasuko akordiora iritsi eta gero, izan daiteke Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartutako ibilbideren bat titulartasun pribatukoa izatea. Edonola ere, horien gainean lurralde izaerako administrazioren batek foru arau honetan aurreikusitako eskumenak eskuratuko ditu.

3. Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartutako ibilbideek, horien titulartasuna edozein titulu dela bide Arabako Foru Aldundiarena bada, Foru Ibilbide Berde izena edukiko dute.

**5. artikulua. Izaera**

1. Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen azpiegiturak jabari eta erabilera publikoko ondasunak dira, eta horien kudeaketa eta erabilera foru arau honetan bildutako zehaztapenetara atxikita dago.

2. Jabari publikoko ondasunen izaera horretatik kanpo geratzen dira Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartutako titulartasun pribatuko ibilbideak. Horiek, kasu bakoitzean sinatzen den hitzarmenean jasotako edukiaren arabera, erabilera publikoari atxikitako ondasunen izaera eduki ahalko dute.

3. Arabako Ibilbide Berdeen Sarean sartutako titulartasun publikoko azpiegiturek jabari publikoko ondasunen izaera dute eta ezin dira besterendu, bahitu edo preskribatu. Horien titulartasuna edo horien eraikuntza, hobekuntza edo egokitzapen, zaintza edo ustiapenari buruzko jardun publikoak ezin izango dira inolako zergaren xede.

4. Ibilbide Berdeen eraikuntza, egokitzapen eta hobekuntza proiektuak onartzeko, nahitaezko desjabetzeari atxikitako erabilera publikoaren adierazpena egingo da, eta baita proiektu horien bakarkako zerrendan ageri diren afektatutako ondasun eta eskubideen okupazio beharra eta zortasunen ezarpena edo aldaketa ere.

5. Ondasunak eta eskubideak okupatzeko eta zortasunak ezartzeko beharra adierazteak barnean hartuko ditu obrak egiteko, zerbitzuak birjartzeko eta gerora horiek egokiro ustiatzeko eskuratu edo okupatu beharko diren guztiak.

**6. artikulua. Ibilbide Berdeen Sarean integratzea**

1. Azpiegituraren baten titulartasuna beste toki erakunde, kontzeju edo udalen batena bada eta hura Sarean sartzea egokitzat jotzen bada, Ibilbide Berdeen erabilerari hura afektatzerik egongo da bere elementu funtzionalekin batera. Horretarako, alderdien arteko akordioa behar izango da eta hori hitzarmen egokiaren bitartez gauzatuko da.

2. Afektatutako azpiegitura Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartuko da. Sarearen erabilerari ekarritako afektazioak ALHAOn argitaratuko dira.

III. KAPITULUA: ESKUMEN ARAUBIDEA

**7. artikulua. Eskumenak**

1. Arabako Foru Aldundiarenak dira Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen ezarpen eta garapen ona sustatzearen, bultzatzearen, zuzentzearen eta koordinatzearen gaiko eskumenak.

2. Arabako Lurralde Historikokoak diren Ibilbide Berdeen demaniozko titulartasunaz gain, Arabako Foru Aldundiari dagokio Arabako

y las condiciones previstas en la misma, así como en el resto de la legislación sectorial que pueda resultar de aplicación a los mismos.

En aquellos tramos de la Red de Itinerarios Verdes de Álava que coincidan con caminos rurales, vías pecuarias o forestales será de aplicación la normativa específica de los caminos rurales, vías pecuarias o forestales.

Quedan expresamente excluidas de la presente regulación las vías ciclistas reguladas por la Norma Foral 4/2010, de 8 de marzo.

CAPÍTULO II: TITULARIDAD DE LOS ITINERARIOS VERDES

**Artículo 4. Titularidad**

1. Los Itinerarios Verdes de titularidad pública incluidos en la Red de Itinerarios Verdes de Álava pertenecen al Territorio Histórico, Ayuntamientos o Concejos.

2. No obstante lo dispuesto en los apartados anteriores, pueden existir, previo el oportuno acuerdo, el cual revestirá forma de Convenio, itinerarios integrados en la Red de Itinerarios Verdes de Álava, cuya titularidad sea privada, pero sobre los que alguna Administración de carácter territorial adquiera la competencias previstas en la presente Norma Foral.

3. Los itinerarios integrados en la Red de Itinerarios Verdes de Álava cuya titularidad pertenezca por cualquier título a la Diputación Foral de Álava se denominan Itinerarios Verdes Forales.

**Artículo 5. Naturaleza**

1. Las infraestructuras de la Red de Itinerarios Verdes de Álava constituyen bienes de dominio y uso público, cuya gestión y utilización están sujetas a las determinaciones contenidas en la presente Norma Foral.

2. Se excluye de dicha condición de bienes de dominio público, los itinerarios integrados en la Red de Itinerarios Verdes de Álava de titularidad privada, los cuales en función del contenido concreto del convenio suscrito, podrán reunir la condición de bienes afectos al uso público.

3. Las infraestructuras integrantes de la Red de Itinerarios Verdes de Álava de titularidad pública tienen el carácter de bienes de dominio público y son inalienables, inembargables e imprescriptibles sin que, en ningún caso, su titularidad o las actuaciones públicas referidas a la construcción, mejora o acondicionamiento, conservación o explotación de los mismos puedan ser objeto de tributo alguno.

4. Conllevará la declaración de utilidad pública a efectos de expropiación forzosa, la aprobación de los proyectos de construcción, acondicionamiento y mejora de Itinerarios Verdes y la necesidad de ocupación de los bienes y derechos afectados que figuren en la relación individualizada de tales proyectos así como la de imposición o modificación de servidumbres.

5. La declaración de necesidad de ocupación de los bienes y derechos e imposición de servidumbres se extenderá a la de todos los que resulte necesario adquirir u ocupar para la ejecución de las obras, reposición de servicios y demás actividades necesarias para su posterior explotación.

**Artículo 6. Integración en la Red de Itinerarios Verdes**

1. Aquellas infraestructuras cuya titularidad pertenezca a otras Entidades Locales, Concejos o Ayuntamientos, y que se estime conveniente integrar en la Red, podrán ser afectados al uso de los Itinerarios Verdes junto con sus elementos funcionales, previo acuerdo entre las partes, mediante la suscripción del oportuno convenio.

2. La infraestructura afectada se incluirá en el Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava. Las afecciones al uso de la Red serán publicadas en el BOTHA.

CAPÍTULO III: RÉGIMEN COMPETENCIAL

**Artículo 7. Competencias**

1. Corresponden a la Diputación Foral de Álava las competencias en materia de promoción, impulso, dirección y coordinación del establecimiento y buen desarrollo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava.

2. Además de la titularidad demanial de los Itinerarios Verdes que pertenezcan al Territorio Histórico de Álava, corresponde a la

Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoan sartutako Ibilbide Berde guztien eginkizun teknikoa, ikuskapenekoa eta zehatzailea gauzatzea, baita oraindik katalogo horretan sartu ez arren etorkizunean Foru Aldundiaren erabateko edo neurri bateko dirulaguntzarekin eraikitzen diren horien gainekoa ere.

Hona zeintzuk diren eginkizun teknikoak: arau teknikoak onartzea Ibilbide Berdeen planak, proiektuak, aldaketak, hobekuntzak eta zaintzak edo konponketak egiteko.

3. Arabako Ibilbide Berdeen Katalogoan sartu ez diren Ibilbide Berdeen gainean eskumen berdinak dituzte Toki Erakunde Titularrek, eta foru arau honetan xedatutakoari jarraiki baliatuko dituzte eskumen horiek. Katalogoan inskribatutako Ibilbide Berdeei dagokienez, Toki Erakunde Titularrek Arabako Foru Aldundiari egotzi ez zaizkion gainerako eginkizunak baliatuko dituzte.

**8. artikulua. Hirigintza Planeamenduaren egokitzapena**

1. Foru arau honek lotu egiten ditu baldintza berdinetan Hirigintza Planak, beraz, horiek, berraztertzeak edota idazkera berriak egiten dituztenean, foru arau honetako zehaztapenak eta gomendioak sartu beharko dituzte.

2. Hirigintza Arauen berezko erabileren antolamendua eta arauketa, Ibilbide Berdeen eremuei dagokienez, bateragarriak izan beharko dira foru arau honen helburu eta zehaztapenekin.

**9. artikulua. Administrazioen arteko harremanak**

Arabako Foru Aldundiak eta toki erakundeek elkarrekiko informazio, lankidetza, koordinazio eta bakoitzaren eskumen esparruarekiko errespetu betebeharretara orientatuko dituzte Ibilbide Berdeen gaineko beren harremanak; solidarioki zaindu egingo da Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen jarraitutasuna eta funtzionaltasuna.

Horretarako, Arabako Foru Aldundiak eta ibilbideen titular diren edo horien gaineko eskumenak dituzten toki erakundeek kasuan kasuko hitzarmenak sinatu edo administrazio prozedura erkidearen legedi orokorrean aurreikusitako beste baliabideren bat erabili ahalko dute.

Lan ildo horretatik jarraituz, Arabako Foru Aldundiak eta Toki Erakunde Titularrek, beren eskumenak baliatuz, sustatu egingo dituzte beste administrazio edo autonomia erkidego batzuekiko harremanak. Horretarako, lankidetza hitzarmenak sinatuko dira edo administrazio lankidetzako, lankidetza teknikoko eta ekonomikoko beste tresnaren bat erabiliko da, horren bitartez Ibilbide Berdeen bidezko lurralde arteko loturaren alde egiteko eta horien gaineko babesa, defentsa, zaintza, ikuskapena eta sustapena hobetzeko.

IV. KAPITULUA: ARABAKO IBILBIDE BERDEEN SAREAREN KATALOGOA

**10. artikulua. Katalogoa**

1. Arabako Foru Aldundiak Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen katalogo bat onartuko du. Hura aldizka berraztertu eta eguneratuko da, eta kasuan kasuko titulartasunak nahiz horien gaineko beste datu interesgarri batzuk jasoko ditu.

2. Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoa administrazio izaera edukiko duen erregistro bat da; bertan, Ibilbide Berdetzat jo diren ibilbide guztiak sartuko dira, eta baita aurrerantzean adierazpen hori jasotzen dutenak ere. Horiei guztiei foru arau honetan aurreikusitako araubide juridikoa aplikatuko zaie. Horretarako, bertan sartuko dira jada existitzen diren Ibilbide Berdeak, Toki Erakunde Titularrek edo horien gaineko eskumenak dituztenek hori erabakitzen dutenean. Etorkizunean Arabako Foru Aldundiak berak eraikita edo bere erabateko edo neurri bateko dirulaguntzarekin eginda existitu daitezkeenak ere sartuko dira.

**11. artikulua. Adierazpena**

1. Arabako Ibilbide Berdeen adierazpena, Erakunde Titularrak eskatuta edo ofizioz, Ibilbide Berdeen gainean eskumenak dituen Sailaren proposamenaren ondotik egingo da, eta Erakunde Titularraren eta landa bideetan, abere bideetan eta onura publikoko mendietan eskumena duten baso sailen baimenarekin, haiei eragiten dienean. Diputatuen Kontseiluaren Erabakia behar izango da, eragindako toki erakundeen eta gaiarengatik interesa duten foru sailen entzunaldiko izapidea bete eta gero.

Diputación Foral de Álava el ejercicio de la función técnica, de vigilancia y sancionadora de todos los Itinerarios Verdes incluidos en el Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava, o, aún cuando todavía no se hayan incluido, los que en el futuro se construyan con subvención total o parcial de la Diputación Foral.

La función técnica incluirá la aprobación de las normas técnicas de planificación, proyección, construcción, modificación, mejora y conservación o reparación de los Itinerarios Verdes.

3. Corresponden a las Entidades Locales titulares las mismas competencias sobre aquellos Itinerarios Verdes no inscritos en el Catálogo de Itinerarios Verdes de Álava que las ejercerán con arreglo a lo dispuesto en esta Norma Foral. Sobre los Itinerarios Verdes inscritos en el Catálogo las Entidades Locales Titulares ejercerán las restantes funciones no atribuidas a la Diputación Foral de Álava.

**Artículo 8. Adaptación del Planeamiento Urbanístico**

1. La presente Norma Foral vincula en sus propios términos a los Planes Urbanísticos, por lo que éstos en su Revisiones y/o Nuevas Formulaciones deberán incorporar sus determinaciones y recomendaciones.

2. La ordenación y regulación de usos propios de las Normas Urbanísticas en lo que se refiere a los ámbitos correspondientes a los Itinerarios Verdes deberá ser compatible con los objetivos y determinaciones de la presente Norma Foral.

**Artículo 9. Relaciones interadministrativas**

La Diputación Foral de Álava y las Entidades Locales orientarán las relaciones en cuestión de Itinerarios Verdes a los deberes de información mutua, colaboración, coordinación y respeto a sus respectivos ámbitos competenciales velando solidariamente por la continuidad y funcionalidad de la Red de Itinerarios Verdes de Álava.

A tal efecto, la Diputación Foral de Álava y las Entidades Locales titulares de los itinerarios o con competencias sobre los mismos podrán suscribir los oportunos convenios o cualquier otro instrumento previsto en la legislación general de procedimiento administrativo común.

En esta línea de trabajo la Diputación Foral de Álava y las Entidades Locales titulares promoverán, en el ejercicio de sus competencias, las relaciones con otras Administraciones o Comunidades Autónomas, mediante la suscripción de convenios de colaboración u otros instrumentos de cooperación administrativa, técnica y económica, en orden a favorecer la conexión interterritorial a través de los Itinerarios Verdes, así como para su mejor protección y defensa, gestión de su conservación y vigilancia y promoción.

CAPÍTULO IV: CATÁLOGO DE LA RED DE ITINERARIOS VERDES DE ÁLAVA

**Artículo 10. Catálogo**

1. La Diputación Foral de Álava aprobará un Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava que, revisado y actualizado periódicamente, establezca las titularidades correspondientes, así como otros datos de interés sobre los mismos.

2. El Catálogo de la Red de Itinerarios Verdes de Álava es un registro de carácter administrativo, en el que se incluyen todos los Itinerarios Verdes que han sido declarados como tales, así como aquéllos que en lo sucesivo reciban tal declaración, y a todos los cuales será aplicable el régimen jurídico previsto en la presente Norma Foral. A tal efecto se incluirán en el mismo los Itinerarios Verdes ya existentes cuando así lo acuerden las Entidades Locales titulares o con competencias sobre los mismos, o los que en el futuro puedan existir, ya se construyan por la propia Diputación Foral de Álava, o con subvención total o parcial de la misma.

**Artículo 11. Declaración**

1. La declaración de Itinerarios Verdes de Álava se efectuará, a solicitud de la Entidad Titular o de oficio, a propuesta del Departamento con competencias sobre Itinerarios Verdes y consentimiento de la Entidad Titular y del departamento o departamentos forestales competentes en caminos rurales, vías pecuarias y montes de utilidad pública cuando se vean afectados, por Acuerdo del Consejo de Diputados, tras el trámite de audiencia a Entidades Locales afectadas y Departamentos Forales interesados por razón de la materia.

2. Katalogoan Ibilbide Berde bat sartzeak esan nahi du hari foru arau honetan aurreikusitako araubide berdina aplikatuko zaiola.

Adierazpenak hurrengo alderdiak bilduko ditu: azpiegituraren izena, Ibilbidearen sailkapena, maila (Lehentasunezko Interesa, Eskualdekoa eta Tokikoa), trazaduraren deskripzioa eta ezaugarri orokorrak –ibilbidearen hasiera eta amaiera mugatzen duten puntuak finkatuz–, zeharkatzen dituen udal mugarteen identifikazioa, distantzia osoa kilometrotan, iraunkorki bere zerbitzura dituen afektatutako zona eta instalazioak, erabilera araubidea eta aipatutako eraginetarako interesekotzat jotzen den beste edozein datu.

Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen Katalogoak aurreikusi egingo du, halaber, dagokion kasuetarako, zein tokitik aurrera amaitzen den Foru Aldundiaren zaintza betebeharra, zaintza hori tarte bakoitzean jabe edo eskudun diren udalerri edo entitateek egiteko.

1. Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen azpiegitura Katalogoa eguneratze edo aldaketaren xede izango da jarraian aipatuko diren kasuetan:

- Ibilbide Berdeen Sarearen azpiegiturak titulartasuna aldatzen badu

- Sarearen azpiegitura berriak eraikitzen, suspertzen edo lehengoratzen eta adierazten badira edo jada existitzen direnak aldatzen badira.

- Ibilbide hauei eragin diezaieketen beste azpiegitura batzuk sortzen, aldatzen edo ezabatzen badira.

**12. artikulua. Prozedura**

Behin Arabako Ibilbide Berdeen Sarearen azpiegitura baten obrak gauzatu eta eskuratuta, ibilbide berdeetan eskumena duen Arabako Foru Aldundiko Sailak administrazio espedientea bideratuko du, haren adierazpena egiteko. Bertan, egindako jardunak biltzen dituen memoria bat sartuko da, eta baita haiek behar bezala eskuratu izanaren akta ere. Espedientean, lege txosten egokiekin eta kasuan kasuko proposamenarekin, Foru Erabakiaren testua sartuko da eta Diputatuen Kontseiluari helaraziko, hark onar dezan.

V. KAPITULUA: EZAUGARRI OROKORRAK

**13. artikulua. Ezaugarri orokorrak**

Arabako Ibilbide Berdeen Sareak bete egin beharko ditu eta egokitu egin beharko da Sarearen barruan dauden ibilbide tipologia guztiek komunean dituzten ezaugarri orokor hauetara:

